La idea era que les enseñase castellano. El idioma oficial es el francés, pero tienen mucha relación con varias ONG del País Vasco, con lo que les venía bien aprenderlo. También estuve un mes como fisioterapeuta. A partir de eso, ayudaba en el día a día: llevar muebles para la inauguración de la escuela, visitar poblaciones de unos 100 habitantes para hacer unos talleres... Yo estaba encantado de ayudar en lo que fuera.

¿Qué te llamó la atención?
El respeto que hay a las distintas religiones. Hay gente de fe cristiana, musulmana, miembros de muchas religiones más minoritarias... Todas las personas se respetan unas a otras. ¡Qué capacidad de tolerancia! No había mucho conflicto religioso, al menos cuando yo estuve.

¿Era muy diferente la vida en Parakou y en los pueblos de 100 habitantes?
Sí era diferente. Parakou tiene unos 50.000 habitantes y tenía escuelas, electricidad, agua, se hablaba francés... Los pueblos están muy aislados.

Has comentado que la organización no llevaba mucho tiempo implantando el proyecto. ¿Qué recibimiento tuvo?
Llevaba dos o tres años desarrollándose, pero había habido un trabajo previo. La organización estaba un poco incandescente, con muchos frentes abiertos. Daba la sensación de que abarcaban demasiado, pero había mucha ilusión.

¿Tuviste tiempo de conocer más de Benín?
Alguna escapada hice, sobre todo a Cotonou. En una de esas visité La Puerta de No Retorno, en Porto Novo, que fue una de las principales salidas de personas esclavas hacia América. Tuve la oportunidad de visitar una reserva natural en el norte, pero la entrada eran 100 euros: el salario mensual de un fisioterapeuta de allí. ¿Cómo les iba

a decir que me iba a gastar el equivalente de su salario en un viaje? Si ya de por sí te miran de forma diferente, hubiese creado mayor diferencia. Decidí no ir.

Seguramente era más interesante conocer a esas personas
La posibilidad de convivir en el día a día fue lo mejor; y no como turista. Hasta cierto punto, porque sabes que tarde o temprano te vas a ir. Al menos te cambia la visión, ves una persona, de tú a tú, sin condescendencia, con dignidad. Es otra de las cosas más positivas que me llevé: la dignidad de la gente.

¿Y lo peor?
¡Lo que pica la comida! Hablando en serio: la rabia y la sensación de impotencia. Limpiamos nuestra conciencia pensando que haces una labor, pero luego no somos consecuentes. Tu vida puede generar su pobreza. En el fondo no son países pobres, tienen muchos recursos.

¿Recomendarías la experiencia?
No es una decisión que haya que tomar de hoy para mañana. Apúntate si tienes interés de verdad, no son unas vacaciones pagadas.

GISELA MUÑOZ GARCÍA (BILBO, 1981)
AÑO: 2010
LUGAR: BOUAKE, COSTA DE MARFIL
ORGANIZACIÓN NO GUBERNAMENTAL:
SERSO SAN VIATOR

«ES UN APRENDIZAJE DE LO QUE PUEDES APLICAR EN TU DÍA A DÍA»

Gisela Muñoz García dedica esta entrevista a Constant, médico que conoció en el programa Juventud Vasca Cooperante: "Un amigo que me marcó y me marcará toda la vida".

Viendo la experiencia con retrospectiva, ¿con qué te quedas?
Por un lado está la experiencia personal y por otro la experiencia colectiva. Es muy positivo que se hagan programas así si la gente

«No sería la que soy si no hubiese vivido esta experiencia»

sabe ver lo fundamental de ello. Abrir la mente sin creer que estás haciendo un esfuerzo. Tú eres una privilegiada por poder vivirlo, lo tienes que aprovechar y poner tu granito de arena en pos de una sociedad crítica con ganas de que el mundo progrese.

¿Es dura la vuelta a casa?
Cuesta volver. Es importante volver a tu realidad. Sobre todo darte cuenta de que has vuelto a tu sitio por algo. Esta experiencia es un aprendizaje de lo que puedes aplicar en tu día a día. Mi conclusión es que está muy bien conocer el mundo, nuevas experiencias, pero eso te tiene que servir para ver lo que puedes hacer en tu entorno.

Si pudieses volver atrás en el tiempo, ¿volverías a apuntarte?
Una y mil veces. Es verdad que aún me cuesta digerir ciertas cosas que viví, que es duro. Pero yo no sería la que soy si no hubiese vivido esta experiencia. Las experiencias provocan emociones, las emociones cambian tu estructura mental y eso condiciona tu vida. Es algo tan emocionalmente intenso que se graba a fuego.

Tu destino fue África: Costa de Marfil. ¿Lo conocías?
Hasta ese momento no sabía nada. Siempre me había atraído África, mi hija se llama África. Había estado en Mozambique, pero no en Costa de Marfil.

¿Cómo fue la llegada?

Es fascinante llegar a un sitio tan diferente, nos acogieron fenomenal. Fuimos tres personas: Alain para ayudar en la parte de traducción, Ainara, odontóloga, y yo, pediatra. Los primeros días son para observar y conocer. Una de las cosas de las que me di cuenta nada más llegar es que tú vas para aprender, luego si puedes aportar, fenomenal. Ya nos lo habían dicho de antemano y, también, que era importante no meter la pata. Por ejemplo, si presenciabas un caso de violencia de género o tenías conocimiento de ello, no debías decir nada a las personas que lo habían hecho o sufrido; tenías que ir a donde la gente de la asociación.

¿Cómo os fue con la gente de la ONG?

La gente local de la organización me pareció gente increíble, que hacía una labor muy altruista. Las conversaciones que teníamos eran muy ricas. Simplemente, sentarte allí a escuchar era apasionante. Y conocer la cultura de allí. Lo primero que tienes que hacer al llegar a una casa es preguntar por las novedades. Entonces te cuentan todos los entresijos familiares, puedes estar dos horas escuchando, es muy protocolario.

Al trabajar como médica, también conocerías más gente. ¿Cómo son?

Me causó admiración el respeto hacia las personas mayores. Son los que más voz y voto tienen: hablan primero, se les escucha, tienen prioridad a la hora de comer, se cuida su higiene... También me gustó conocer tanto a gente musulmana como cristiana —la fe está muy presente—, ver como convivían sin conflictos.

¿Son tan felices como se suele decir?

Ese mito me da rabia, eso de que con lo poco que tienen son felices. No. También sufren. No hay que idealizarlo. Es gente que sufre, pero la forma de sentir y transmitir, tanto el lenguaje verbal como el no verbal es diferente. El sufrimiento se percibe de otra manera.

KOLDO ZABALA OSES (IRUN, 1986)
URTEA: 2011
LEKUA: MEDELLIN, KOLONBIA
GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEA:
JÓVENES Y TERCER MUNDO

«BETETASUN SENTSAZIOAREKIN ITZULI NINTZEN»

Lekuko aurreiritziak apurtu, eta haurtzaindegiko haurrak zaindu zituen hiru hilabetez Koldo Zabala Oses irundarrak.

«Nahi adina irakurri ahal duzu joan aurretik, baina unea bizi arte ez dakizu zein izango den zure erreakzioa»

Nolakoa da Medellinera iristea?
Lehenengo eguna oso gogorra da. Halere, beldurgarriena ez da hori, laugarren edo bosgarren asterako guztiz ohitu zarela baizik. Horretaz konturatzea *shock* bat da. Aste batetik bestera egokitzen zara, eta denbora luzez egon zarela dirudi.

Konturatzen al da norbera noiz gertatzen den aldaketa?
Oso gogoetatsua naiz, eta zergatia ulertzen saiatzen naiz. Hasieran, analisiak dakarren paralisia duzu, eguneko gauzak bidegabeak iruditzen zaizkizu, eta irtenbidea bila dezakezula uste duzu. Baina han zaudela konturatzen zarenean, zein den zure papera, ezin duzula ezer ere egin, lekuaren arauak onartzen dituzu. Hori barneratzen baduzu, ohitu zara jada.

Nolako lana egin zenuen Medellinen?
Don Bosco Hiria programara joan nintzen, beste bi neska eta mutil batekin. Hasiera baten lo egiten genuen gunean bertan lagundu behar nuen, eskolan, klaseak ematen. Dena den, haurtzaindegi bat zegoen handik gertu, eta bat-bateko maitemina bizi izan nuen. Aldebikoa izan zen, dirudienez, eta han hasi nintzen lanean. Aitortu behar dizut neure burua ez nuela 15 urteko gazteekin lan egiteko prest ikusten, bai, ordea, haur txikiekin. Lan asko egiten nuen, 07:00etatik 19:00etara, eta haurren behar oro asetzen genuen. Nahi baino lehenago itzuli behar izan nuen, baina, oposizio batzuk tarteko.

Pena eman al zizun lehenago joan behar izateak?
Noski. Inoiz ez da etxera itzultzeko une ona, baina oso gustura nengoen. Aurreiritzi asko apurtu nituen, haientzat ez baitzen ohikoa gizonezko batek haurtzaindegiko haurrak zaintzea. Are gehiago atzerritarra izanik.

Oso gustura aritu zinen lanean, ezta?
Haurtzaindegia bisitatu nuen unetik nekien hor egin nahi nuela lan. Horrez gain, Don Bosko Hiriko talde batekin lanean hasi nintzen. *Las Chicas* deitzen zioten beren buruari. Homosexualak ziren, eta babesik gabe zeuden. Asko gozatu nuen talde horrekin lan eginez.

Medellinera joan zinen, baina ba al zenuen lehentasunik?
Bat bera ere ez. Ez nuen enbarazurik egin nahi, hortik aurrera berdin zidan leku bat edo beste. Halere, aitortu behar dut beldur apur bat izan nuela Medellin entzun nuenean.

Nolakoa zen auzoa?
Medellin bailara batean dago, eta zenbat eta gorago joan, orduan eta pobrezia handiagoa. Muino gainean bizi ginen gu, aldapa amaiezin baten gainaldean. Auzoak komunitate izaera zuen. Primeran integratu nintzen. Pentsa, haurtzaindegiko amekin aerobic egiten amaitu nuen!

Itzuliko al zinateke proiektu horietan lan egitera?
Ondo pentsatu beharko nuke. Begiak itxita itzuliko nintzateke lan egitera, esperientzia gisa izugarria izango litzateke, baina ez dakit guztiari aurre egiteko prest egongo nintzatekeen.

Energia handia eskatzen du?
Asko, batez ere hasieran. Nire ustez, askok ez lukete parte hartuko aldez aurretik nora doazen ondo jakingo balute.

Hain inuzenteak al gara joaten garenean?
Nahi adina irakurri ahal duzu joan aurretik, baina unea bizi arte ez dakizu zein izango den zure erreakzioa.

Zer izan zen onena?
Betetasun sentsazioarekin itzuli nintzen. Haur hezkuntzako eskola batean lanean hasi nintzen itzuli nintzenean, baina banekien horrek ez ninduela Medellingo lanak bezain-beste asebeteko. Zailtasunen aurrean hazi egiten zara, zure bertsio onena agertzen da. Nire bertsio onena hango komunitateari esker azaleratu zen.

Eta gogorrena?
Segurtasun falta izatea eta pertsona baten eskubide guztiak bermatuta ez daudela konturatzeak eragiten dizun ezintasuna. Ezin duzu haien bizitza aldatu, ez zara salbatzailea.

IRANTZU ZABALA ELIZONDO (BERMEO, 1983)
URTEA: 2012
LEKUA: POCHUTA, GUATEMALA
GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEA: BATEGINEZ

«ONARTU EGIN BEHAR DUZU HAIEN EGOERA ERABAT DESBERDINA DELA»

Egonaldian zenbait une gogor bizi izan bazituen ere, izandako esperientziarekin "eskertuta" dago Irantzu Zabala Elizondo.

«Hiru hilabete ez dira nahikoa muinera iristeko»

Zure bidaiaren nondik norakoak azaltzen zituen blog bat idatzi zenuen.
Bai. Bestela, gauza asko ahaztu egiten dira. Liburu bat irakurtzen duzunean, esperientziaren barruan zaudela sentitzen duzu; gero, liburu hori itxi, eta apal batean geratzen da, zarratuta. Nik, esperientzia bertatik bertara bizi izan nuen, oso bizia izan zen, eta horrela, hor dut oroitzapena, nahi dudanerako. Atzo [elkarrizketaren aurreko egunean] hartu nuen, irakurtzeko, istorio honetan sartzeko.

Eta sartu al zinen?
Bai, gauza pila bat gogoratzen hasi nintzen.

Zerk bultzatu zintuen parte hartzera?
29 urte nituen, parte hartzeko mugan. Beti izan nuen kooperante gisa nonbaitera joateko ideia, eta inflexio puntu bat egon zen nire bizitzan. Parte hartzera animatu nintzen, hasi zen abentura.

Guatemalara eraman zintuen abenturak, Pochutara.
Bi pertsona joan ginen elkarregaz, Amaia eta ni. Durangoko Bateginez elkartearekin lankidetza duen Apsadec elkartera joan ginen. Herritarrei eta kafe sailetako langileei laguntzen dien elkartea da: elikadura, higienea, osasuna, ikasketak... Bateginez-ek diru laguntzak ematen dizkie, haurrak eskolara joan ahal izan daitezen. Ni, andereñoa naizenez, hezkuntza arloan aritu nintzen: ume asko ez dira eskolara joaten, eta horren arrazoia ikertu nuen.

Zein zen egoera?
Hiru hilabete ez dira nahikoa muinera iristeko. Hasieran, berritasuna ginen, eta ilusioarekin hasi ziren haiek; gu ere asko inplikatu ginen. Pixkanaka egia ikusten duzu: motibazio falta handia zegoen, ez diote hezkuntzari garrantzirik ematen. Bi egoera zeuden: Pochuta herriko umeak, motibazio gabe; eta kafe sailetakoak, herritik urrun, segurtasun faltagatik eskolara etorri ezin zirenak. Eta gu finketara joateko... gaizki. Hamabi urtetik aurrera, bereziki neskek, ez zuten etorkizuneko planik egiten, ez zuten lan egiteko aukerarik ikusten. Hori kontuan hartuta, eskolara huts egiten zuten. Kafe sailetako haurren egoera bestelakoa zen, oso gogorra.

Frustragarria izan behar du...
Amorragarria! Ezintasun handia nuen. Azkenean, baina, ulertu nuen haien egoera zela, ez genuela makila magikorik. Onartu egin behar duzu haien egoera erabat desberdina dela. Denak du bere denbora eta prozesua. Denbora gutxian sekulako aldaketa egin dute. Azkenean, klaseak emateaz gain, hitzaldiak eman genituen, hango neskek ikus zezaten bazela beste biderik. Gurea: 29 urterekin, ezkondu gabe, ama izan gabe.

Gogorra izan al zen esperientzia?
Gure esperientzia polita izan da, nahiz eta gogorra ere izan den. Asko eskertzen diot Eusko Jaurlaritzari emandako aukera. Hemen denetarik dugu, eta kolpe handia da beste herrialdeetako egoera ezagutzea. Laguntzera joan ginen gu, eta konturatu ginen ez genuela gauza handirik egin. Guatemalakoek, baina, maitasun handia eman ziguten.

Hainbat erakunderen arabera, Guatemala da Amerikako herrialderik arriskutsuena. Hala al da?
Bertakoek beldur handia dute. Indarkeria eguneroko ogia da. Niri bakarrik ibiltzea gustatzen zait, eta han ezin nuen askatasunez ibili: kaiolaturik sentitzen nintzen. Guk ez genuen arazorik izan, *ukiezinak* ginen.

Zer izan zen onena?
Nahiz eta haien bizitza hain gogorra izan, izugarrizko umorea dute. Irribarrez kontatu ahal dizute bortxatu egin zituztela. Oso eskuzabalak dira, duten gutxia hirukoiztuta ematen dizute.

Eta okerrena?
Askatasun falta.

JON BADIOLA TOTORIKAGUENA (DURANGO, 1989)
URTEA: 2013
LEKUA: COCHABAMBA, BOLIVIA
GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEA:
FORO RURAL MUNDIAL

«LOTSA KENDU ETA SEGURTASUNA EMAN ZIDAN»

Nutrizioa eta Giza Dietetika diplomatura eta Elementuen Zientzia eta Teknologia lizentziatura amaitu berritan eman zuen izena Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan Jon Badiola Totorikaguenak. Ikasitakoa Bolivian jarri zuen praktikan, Cochabamban.

«Horrelako beste proiektu batean parte hartzeko indarra eman zidan»

Ikasitakoarekin lotura zuen proiektu baterako hautatu zintuzten.
Boliviara joatea egokitu zitzaidan, Cochabambara. CIPCA Nekazarien Ikerketa eta Promozio Gunera joan nintzen, elikadura subiranotasun proiektu batean lan egitera. Ez nintzen bakarrik joan, baina beste pertsona, Ruth, soziologoa zen, eta emakumeen berdintasunaren inguruan aritu zen.

Pozik egon zinen proiektuarekin?
Oso gustura sentitu nintzen. Hasieran kostatu zitzaidan proiektuari nondik heldu asmatzea, ez nuen asmatu hango nutrizionistarekin ondo moldatzen. Pare bat aste geroago asmatu genuen nola egin.

Hainbat lekutan aritu nintzen informazio saioak ematen. Hainbat produktu hango nekazaritzan sartzen saiatu ginen, haientzat onuragarriak izango ziren elikagaiak ziren.

Ez da erraza izango mendez mende elikadura bera mantendu dutenak iritziz aldatzea.
Gune oso lehorrean bizi dira, tenperatura kontraste handikoan. Ez dute urik, eta eguzkia, gehiegi. Patata, artoa eta horrelakoak ekoizten dituzte bakarrik.

Lehorra dela esan duzu, baina nolakoa da zehazki Cochabamba?
Cochabamba hiria da, eta han genuen bulegoa. Handik Sacabambara joaten ginen, herri txiki bat. Land Roverrean hiru bat orduko bidaia zen. Sacabamba txiki-txikia zen, oso lehorra. Herritarrak oso pobreak ziren.

Ezagutzen al zenuen lehenagotik? Esperotakoa aurkitu al zenuen?
Ez nuen ezagutzen, Googlen bilatu behar izan nuen. Espektatiba aldetik, ez nuen gehiegi: gozatzea soilik.

Hegaldia hartu, eta Cochabambara iritsi zinen. Zer moduz hartu zintuzten?
Oso jatorrak izan ziren gurekin. Bila etorri zitzaizkigun. Oso hurbileko jendea da. Irekia izanik, ez zitzaidan kostatu haiek ezagutzea.

Beharrezkoa al da irekia izatea Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzeko?
Oso ondo dator. Ez bazara, gehiago sufrituko duzu.

Zer izan zen onena?
Horrelako beste proiektu batean parte hartzeko indarra eman zidan. Konturatu nintzen beste lekuren batean ere nire harri koskorra jar dezakedala, herriko elkarte batean edo kanpoan. Lotsa kendu eta segurtasuna eman zidan. Antzeko aukera bat izan nuen Cochabambatik itzuli eta gutxira: Mendaldeko Saharako errefuxiatu gune batera joatea. "Zergatik ez?" pentsatu nuen.

Bultzada izan zen Cochabambako esperientzia.
Bai. Bai. Eta denoi halako bultzada ematea espero dut.

Txarretik ere izango zuen zerbait...
Jendearengan gehiago eragingo nuela pentsatzen nuen. Ni itzultzean haien dinamikak berdinak izango direla iruditu zitzaidan. Ez dituztela aldatuko. Gure bizitzako esperientzia izan daiteke guretzat, eta beraientzat beste bat gehiago besterik ez zara.

Zergatik gomendatuko zenuke esperientzia?
Jada egin dut. Nire kuadrilako bi joan dira ni egon ostean. Ez nituen nik konbentzitu, baina hain ondo berba egin ondoren, izen ematea pentsatu zuten. Bat Kenyan egon zen eta bestea, Guatemalan. Hori bai, argi izan behar duzu aurreiritzirik gabe joan behar duzula.

Bolivia gehiago ezagutzeko aukera izan al zenuten?
Astean zehar ez genuen aukerarik izaten. Asteburuetan irteera txikiak egiten genituen: barbakoa, futbolean jokatu, nonbaiteko jaietara joan...

DORLETA IDIGORAS LERTXUNDI (ONDARROA, 1990)
URTEA: 2014
LEKUA: AUSERD KANPALEKUA, MENDEBALDEKO SAHARA
GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEA: SEADEN LAGUNEN ELKARTEA

«UMEEN JOSTAILUAK GINEN, HAIEN ENTRETENIMENDUA»

Beroari, kontrolari eta egun motelei aurre egin eta Mendebaldeko Saharako esperientziaz gozatu zuen Dorleta Idigoras Lertxundik; batez ere emakumeekin eta haurrekin zegoenean.

«Unerik onenak familiekin pasatzen genituen»

Hiru urte Saharara joan zinenetik. Ahazten hasi al zara?
Ez, ez. Hau barruan geratzen da. Harremana dut oraindik ere hango familiagaz.

Kooperante gisa kanpora ateratzen zinen lehenengo aldia al zen?
Bai. Urte batzuk arinago parte hartu zuen jendea ezagutzen nuen, eta haiei entzun ondoren erabaki nuen izena ematea, masterra amaitu berritan. Berez, udan joaten da proiektuko jendea, baina Saharara gindoazenez, tenperatura jaitsi arte itxaron genuen. Irailean joan ginen.

Nora? Tindufera?
Auserd kanpalekura, Tindufetik ordubetera. Kanpaleku pobreena da, ez du edateko urik ez argirik.

Nolakoa zen hango bizitza?
Hango luxuan bizi ginen: kooperanteentzat zen protokolo aterpetxean. Oheak genituen lo egiteko, dutxa eta komuna. Familia batekin hiru egun pasatu genituenean igarri genuen diferentzia. Hasiera oso gogorra izan zen. Izugarrizko beroa egiten zuen, ez

ginen ohitzen. Gainera, aktibitate zurrunbilo batetik ia ezer ere ez egitera pasatu ginen: Internetik ez, telebistarik ez... Bero gehien egiten zuen orduetan ez zegoen zer egin.

Luze egingo da ohitu arte...
Hori da. Ez genekien nola entretenitu geure burua.

Konpainia izateak lagunduko zizun.
Elkar ezagutzen ez genuen zortzi pertsona ginen, 24 orduz elkarregaz. Hasieran inork ez zigun esaten zer egin behar genuen. Energia askorekin hasi ginen, eta lasaitzeko esan ziguten, hiru hilabete genituela. "Hemen denbora bete egin behar da". Arrazoi zuten, hasierako energia baretu zenean, txakalaldi bat izan genuen. Azkenean, ohitu ginen haien erritmora.

Konturatzerako, hegazkinean etxera bidean.
Bai, kristoren penarekin. Gainera, bi aste geratzen zitzaizkigunean kanpalekutik atera behar izan genuen, gure segurtasunagatik.

Nolakoa da Mendebaldeko Saharako kanpaleku bateko egunerokoa?
Ez dakigu gehiegi nolakoa zen familien egunerokoa, protokoloan ginelako, militarren batek kontrolatua, beti. 12:00etatik 17:00etara geldialdi bat egiten da, bero sapagatik. Siesta egin, tea hartu... Gu dominoan eta kartetan ibiltzen ginen askotan. Arratsaldean eskola edukitzen dute umeek, liburutegia ere badute... Andreak sukaldean aritzen dira jatekoa prestatzen.

Erizain lanak egin al zenituen?
Ospitalera joaten ginen. Txikia zen, baina ez zegoen Euskal Herrikoak bezain prestatua. Sendagaien aldetik ere mugatu samarra zen. Anbulatorioan tentsioa eta diabetesa dutenekin zer egin behar duten eta halakoak azaltzen genituen. Libre ginenean umeekin jolasean egoten ginen.

Nolakoak dira saharararrak?
Ostiral eta zapatuak jai izaten genituen, eta gure koordinatzaileak

bere familiarekin egotera gonbidatzen gintuen. Saharararrak beti daude barrez, haien kultura erakutsi nahi dizute. Unerik onenak familiekin pasatzen genituen. Umeek poztasuna ematen ziguten; beren jostailuak ginen, beren entretenimendua. Behar egiten nuen emakumeekin ere oso ondo moldatu nintzen. Ez zekiten gazteleraz eta nik ez dakit haien hizkuntza. Halere, barre asko egiten genuen. Gu bezalakoak dira azkenean: musika gustatzen zaie, dantza egitea, kuxkuxean ibiltzea...

Zer izan zen okerrena?
Oso kontrolaturik geunden. Ulertzen dut, haientzako garrantzitsuak gara kooperanteak. Baina estresagarria zen beti militar bat atzetik edukitzea. Uneoro jakin behar zuten non zinen, ez zizuten askatasunik lagatzen.

Izena emango al zenuke berriro?
Bai! Aurrekoan komentatu genuen gure artean, noizbait plaza guztiak betetzen ez badira joango garela berriro! Kristoren esperientzia da. Hasieran nahiko txarto hartu nuen Saharara joan beharra. Orain, ez nuke erabakia aldatuko.

EVA RODRÍGUEZ GARCÍA (VITORIA-GASTEIZ, 1985)
AÑO: 2015
LUGAR: BUCARAMANGA, COLOMBIA
ORGANIZACIÓN NO GUBERNAMENTAL: EDEX

«EN COLOMBIA CELEBRAN MUCHO MÁS LA VIDA, EXPLOTAN EL DÍA A DÍA»

Eva Rodríguez García sigue llevando Colombia en su corazón dos años después. Tanto se acuerda, que incluso ha descubierto un restaurante de comida colombiana en Vitoria-Gasteiz para calmar su añoranza.

«La reunión de vuelta te ayuda a sentirte comprendida, empatizas con las compañeras y los compañeros»

¿Se hacen cortos tres meses?
A mí me voló el tiempo. Es extraño, es poco tiempo, pero cuando vuelves a casa parece que no encajas. Pensaba que iba a volver con ganas de ver a mi gente y no fue así. Pasé una especie de periodo de duelo.

¿Tanto cuesta volver?
Sí. Fue un auténtico bajón. El encuentro que hicimos los y las cooperantes del programa me vino muy bien. Fue terapéutico. Al volver todo es tan frío... En Colombia celebran mucho más la vida. Son más conscientes de lo frágil que es y explotan el día a día.

¿Dónde trabajaste?
En el Instituto Proinapsa, que está en la Universidad Industrial de Santander y que tiene convenios con la OMS para fomentar los derechos sexuales y reproductivos de niños y niñas de primaria a través de proyectos de formación de docentes. Íbamos sede a sede: a colegios, veredas, teníamos encuentros con familias... Me sorprendió la profesionalidad del equipo, por lo jóvenes que eran.

¿Sentiste problemas de inseguridad?
Noté mucha diferencia del ambiente rural a las ciudades. En los pueblos puedes salir de noche, pasear sola. En la ciudad tienes que andar con más cuidado, pero terminas por acostumbrarte. En la ciudad el ocio está centralizado en los centros comerciales.

Nadie usa el espacio público, por miedo. Las ciudades de Colombia no están hechas para ser cómodas o pasear. Y a mí que me gusta mucho caminar... La gente pide todo a domicilio, ¡hasta los pasajes del autobús!

¿En qué consistía tu proyecto?

No conozco un proyecto equivalente aquí y sería muy interesante. Consistía en llevar la educación sexual a las aulas de primaria, adaptado a la edad. La sexualidad viaja con cada persona desde que nacemos. Por ejemplo, el goce y la intimidad, la libertad para elegir amistades... Claro, en algunas poblaciones eso creó alarma social. Por ello, hacíamos encuentros con las familias para explicarles el proyecto. El trabajo transcendía mis tres meses, yo llegué en una fase concreta. Se formaba docentes para que lo incorporasen a su temario y se transmitiese entre generaciones. Tuvo muy buena acogida. Hablábamos de cosas como el derecho a elegir pareja, a la atención sexual de tu propio cuerpo, equidad, los mitos del amor romántico...

Da la sensación de que disfrutaste mucho con tu proyecto.
Sí, fue genial trabajar con las familias de las veredas, eran encuentros muy interesantes.

Ya habías trabajado temas de género y sexualidad, ¿verdad?
En terreno no había trabajado nunca. Estaba especializada en género. No conocía el enfoque de habilidades básicas para la vida. Lo he descubierto y me parece muy útil. He aprendido mucho y me dieron la opción de colaborar en muchas cosas.

¿Qué fue lo más positivo?
Todo lo que he aprendido de la gente. Si vas con la mente abierta te van a acoger con los brazos abiertos. Me ha sorprendido su sabiduría profesional, la pasión con la que viven su profesión y su bondad. Es gente cultivada, inteligente, les falta creérselo más y no tratarnos con tanta veneración.

¿Hubo algo que no te gustó?
Siendo un país tan diverso, con tanto colorido cultural, noté que hay un racismo interno. Es una batalla de demostrar quién es la persona más blanca, y ahí las y los afrodescendientes son lo peor. Es una pena verlo. También destacaría que la inseguridad hace que la gente no pueda disfrutar de un país tan rico. Al volver a casa, me di cuenta del privilegio que era pasear de noche sola por la calle.

Eres de las que insistió con el programa. La primera vez no fuiste seleccionada.
La convivencia en Barria es bonita, ¡pero apuran tu ansiedad al límite! Esperan hasta el último minuto para decirte si te han seleccionado. Estás con las emociones a flor de piel, pero me lo tomé como un regalo y disfruté. Insisto en la importancia que tiene la reunión de vuelta, te ayuda a sentirte comprendida. Los familiares no pueden entenderte tan bien como los compañeros y las compañeras que han estado en tu situación. Empatizan más contigo, aunque hayan sido experiencias diferentes.

AMAIA GOMEZ AROCENA (IRUN, 1987)
URTEA: 2016
LEKUA: SAN IGNACIO DE MOXOS, BOLIVIA
GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEA: TAUPADAK

«BESTE KULTURA ETA BIZIMODU BATZUK EZAGUTZEKO GOGOA NUEN»

Urtebete pasa da Amaia Gomez Arocena Irunera itzuli zenetik. Burua, baina, Bolivian du oraindik ere askotan. Ez da itzuli, baina noizbait egitea espero du.

«Lagun batek ez zuen harraskarik etxean; hori bai, bere gelan plasma handia eta aire girotua zituen»

Barriako egonaldiarekin hasi zen dena.
Oso urduria naiz, eta autobusera igo nintzenean mundu guztia elkarrekin hitz egiten ikusi nuen. Ni bakarrik nindoan, eta guztiak lagunekin zeudela uste nuen. Talde dinamikekin hasi nintzenean konturatu nintzen ez zela hainbesterako. Bigarren asteburuko azken unera arte ez ziguten esan nora gindoazen. Gainera, "Zuek Venezuelara!" esan ziguten, txantxetan. Baina azkenean Bolivian amaitu genuen.

Lehentasunik ba al zenuen?
Ez zidan axola. Baina, egia esan, ezagutzen nuen Boliviako proiektua, Irungo Gobernuz Kanpoko Erakunde batek jorratzen duelako. Buruan nuen proiektu hori.

Ez da ohikoena musika irakasleak aritzea lankidetza programetan.
Musikalki kultura oso aberatsa dute San Ignacion. Jesuiten misioetako partitura asko dituzte artxiboan. *Ensamble* bat dute, eta bi urtean behin Europatik bira egiten dute, proiektuarentzat lana biltzeko. Nik txirula eta musika hizkuntza klaseak eman nituen eskolan. Genevako irakasle batzuk zeuden boluntario gisa. Ensamblearekin batera Vivaldiren *Gloria* kantatu nahi al genuen esan ziguten. Polita izan zen.

Zein adinekoak ziren zure ikasleak?
7 urtetik 18 urtera bitartekoak. Irakasle bat prestatzeko ere baliatu nuen egonaldia.

Eskertu zenuen konpainia izatea?
Bakarrik egotearen beldur nintzen, talka terapia gisa baliagarria izango bazen ere. Babes handia izan zen beste hiru neskarekin joatea. Oso harreman ona egin genuen. Egia da amaierarako espazio apur bat behar duzula, baina ez genuen arazorik izan gure artean. Musika eskolan bertan bizi ginen. Ikasgelak, auditorioa, logelak eta sukaldea zituen eraikinak.

Nolakoa da San Ignacio de Moxos?
Shock handiagoa espero nuen. 10.000 bat biztanlekoa da. Kontraste handia dago: lau makilarekin egindako egiturak, eta ondoan Irunen bizi naizen etxea baino hobea den txaleta. Gu oso ondo bizi ginen: hozkailua eta ur beroa genituen. Hango norbaitek bazkaltzera gonbidatu gintuen arte ez ginen jabetu errealitateaz.

Oso txiroa da zonaldea?
Bai, baina badira gauza arraroak ere. Lagun baten etxean izan ginen, sukaldean ez zuen harraskarik, eta ur hotzarekin dutxatzen zen. Hori bai, bere gelan plasma ikaragarri handia eta aire girotua zituen. Zur eta lur utzi gintuen!

Nolako eguraldia zenuten?
Tenperatura aldaketa handiak zeuden: 40 gradutik 15era jaits zitekeen. Ez genuen euri handirik izan. Eskerrak, beldurra nion eta: aurretik han egondako lagun batek uholde ikaragarriak bizi izan zituen.

Zergatik nahi zenuen parte hartu?
Erantzun tipikoa izan arren, beste kultura eta bizimodu batzuk ezagutzeko gogoa nuen. Gainera, ez nuen Hego Amerikara bidaiatu aurretik.

Duela gutxikoa da zure abentura. Zer izan da onena?
Jendea, oso abegikorra da. Haien etxea irekitzen dizute eta beso zabalik hartzen zaituzte.

Bestalde, zerbait txarra bizi izan al zenuen?
Ez genuen hango errealitatea bizi izan, eta ondo egongo zen hango familia batekin bizitzea, errealitatea nolakoa den ezagutzeko. Are gehiago, gu etxera itzuli baino astebete lehenago Alemaniako neska bat etorri zen, eta ez zuen bakarrik egon nahi. Azkenean irakasle batekin hitz egin, eta haren etxera joan zen bizitzera.

Boliviara itzultzeko asmorik?
Bai, baina aurreztu egin behar dut horretarako.

ANDER VIZCAINO CAMINO (IRUN, 1991)
URTEA: 2017
LEKUA: PRIMAVERA DEL IXCÁN, GUATEMALA
GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEA:
BERDINAK GARA XENOFOBIAREN AURKAKO TALDEA

«GOGOAN DITUT ETXEKOAK, USTE BAINO GEHIAGO»

Elkarrizketa egiteko garaian Guatemalan zegoen oraindik Ander Vizcaino Camino gaztea. Handik eman zuen bere bizipenen berri.

Bi hilabete daramatzazu Guatemalan. Zer moduz zaude?
Ondo, bi hilabete pasa dira jada, eta eguneroko errutinan nago. Hasieran, kostatzen da, guztia berria delako, baina pixkanaka egoera aldatzen da.

«Oso esperientzia aberasgarria izaten ari da»

Zer-nolako lana egiten duzu?
Xenofobiaren aurkako elkarte batean gaude, baina batez ere hezkuntza lanetan ari gara: Lehen Hezkuntzako haurrekin hasi eta *Diversificado* deitzen diotenera arte, gure Batxilergoaren parekoa.

Irakasle ikasketak burutu zenituen Euskal Herrian?
Ingeniaritza mekanikoa eta elektrikoa ikasi ditut. Ez dut irakasle eskarmenturik, kuadrillako baten bati matematikak irakastetik harago. Baina beti izan dut jakin-mina. Ikasketak amaitu nituenean CAP, irakasle izateko masterra, egitekotan izan nintzen. Guatemalakoa izugarrizko aukera da, beraz. Orain badakit irakaskuntza gogoko izango dudan ala ez.

Primeran datorkizu, beraz!
Noski! Haurrekin aritzea, haiek motibatzen saiatzea, bizi duten errealitatetik at beste zerbait dagoela erakutsi ahal izatea. Zaila da, baina gogoko dut. Irakasle gisa aritzeaz gain, gizarte hezitzaile gisa aritzen gara, errespetua bezalako balioak erakusteko.

Betetzen ari al dira zure aurreikuspenak?
Egiari zor, ez nekien zer aurkituko nuen hemen. Erresistentzia komunitate batean gaude, armadarekin borrokan aritu ziren hemengoak, eta mendietan bizi ziren. Esperientzia oso aberasgarria izaten ari da. Etxetik ateratzea bera —gurasoekin bizi naiz—, elkarbizitza.... Indigenak dira, gehien-bat, eta haien kultura oso desberdina da gurearekin alderatuta.

Landa gunean bizi al zarete?
Ingurua apur bat isolaturik dago, horrek duen alde onekin eta txarrekin. Kaiolaturik sentitzen gara batzuetan. Gertuen dugun herri handiena, Playa Grande, autoz ordubetera dago. Errepidea ona balitz, ordu erdian iritsiko ginateke, baina hemen harri eta lokatz artean ibili behar dugu. Naturaren erdian bizi gara: ibaia dugu, dena da berdea, fruta dago edonon... Autonomoak dira elikadura aldetik, beharrezko guztia dute. Txunditzen nau horrek!

Guatemala ei da Erdialdeko Amerikako herrialde arriskutsuenetako bat. Beldurtu zintuen horrek?
Nahiko ezaxolatua naiz, baina egia da burura datorrela armen kontua. Horrelakoak gehiago gertatzen dira hirietan gurean baino. Guk ez dugu indarkeriarik ikusi. Hori bai, Guatemalara iritsi ginenean, aireportu inguruan eta, harritu egin gintuzten poliziek eta gainontzeko segurtasun indarrek soinean zituzten armek.

Errespetua eragiten zuten. Gure komunitatean ez dago halako indarkeriarik; hori bai, hemen bost urteko umeek jada badakite matxete bat nola erabili; lan tresna gisa, baina.

Nolakoa da familia egitura?
Familia ugarietan bizi dira, eta askotan eraikinei beste batzuk eransten dizkiete, elkarrekin bizi ahal izateko. Oso gazterik dituzte umeak; pentsa, aurrekoan 40 urteko gizon baten familiarekin egon nintzen bazkaltzen, eta aitona zen. 26 urteko beste mutiko batek hiru seme-alaba zituen, eta helduenari klaseak ematen dizkiot: 12 urte ditu. Halako egoera dutenez, familia mantentzeko bizi dira. Kuriositate gisa, ez dira amultsuak, kostata ikusiko duzu musurik edo besarkadarik.

Zer izaten ari da onena?
Irunera bueltatu arte ezin dut ondoriorik atera. Oraingoz, haiek bizi diren bezala bizitzea da onena. Gogoko dut haurrei klase ematea ere, nire harri koskorra jartzen saiatzea, bizi kalitatea hobetzeko goranahia izan dezaten.

Gutxi falta zaizu itzultzeko. Hasi al zara horri buruz pentsatzen?
Bai, bai... Harritu nau zenbat nabaritu dezakedan familiaren falta. Bakarturik zaudenez, argi gabe eta Internetik gabe askotan, ez duzu inoren berririk. Egin dugun lagun batek bulego bat du, Interneteko konexioarekin. Noiz edo noiz etortzen gara. Lehenengo egunetan sua ateratzen zitzaion sakelakoari, hainbeste Whatsapp mezu batera jasotzen zuenean. Ilusioa egiten du etxekoekin harremanetan jartzeak. Bi hilabete daramatzat hemen, eta bai, gogoan ditut etxekoak... Uste baino gehiago.

NIRE BIDAIA

Oroitzapenak

MI VIAJE

Recuerdos